






5 Egunkaria- 1998 uztailearen 11

zenb.	data	etapa	km
12.	Uzt. 24	Tarasean sur Ariège-Le Cap de Agde	221
13.	Uzt. 25	Frontignan la Peyrade-Carpentras	191
14.	Uzt. 26	Valreas-Grenoble	185
15.	Uzt. 27	Grenoble-Dos Alpes	189
16.	Uzt. 28	Vizille-Albertville	204
17.	Uzt. 29	Albertville-Aix les Bains	149
18.	Uzt. 30	Aix Les Bains-Neuchatel	218
19.	Uzt. 31	Le Chaude Fondos-Autun	238
20.	Abuz. 1	Meneau les Mines-Le Creuset	52
21.	Abuz. 2	Melun-Paris	147



**IRABAZLEAK**




Anquetil, Merckx, Hinault eta Indurain  
Bobet, Thys eta Lemon

# Biguna, gogorra?

## Karreristen erabakia

3.850 km, mendiko bost etapa, bi erlojupeko luze, atsedeen egun bat eta 21 etapa



Igotzaileek mendiko bost etapa izango dituzte ahalik eta denbora gehien ateratzeko.

ARTXIBOA

**1998 Tourra** gaur abiatuko da Dublindik, Irlandako hiriburutik. Berritasun nagusia horixe izango da, antolatzaileek prestatutako ibilbideak ohiko Tourren ezaugarriak jarraitzen baititu. Ia 4.000 kilometro egin beharko dituzte txirrindulariek, 21 etapatan. Osagaiak, hauek: etapa luak, luzeak, arriskutsuak, herri arteko plaza edo biribilgune estuekin lehen astean. Lehenengo erlojupekoa (58 km) sailkapen nagusiko lehen postuak argitzeko eta Pirinioetako bi etapak, klasikoa lehenengoa, mendate berriekin bigarrena; Alpeetako menditzarrak eta agian ezer gutxi erabakiko duen 20. etapako erlojupekoa (52 km).

Lasterketa 5,6 km-ko aitzin-etaparekin hasiko da Dublinen. Irlandan beste bi etapa egingo dira, gorabehera dexente dituzten etapak. Uztailearen 14an, hirugarren etapen, Frantziara itzuliko da Tourra. Etapa lau amaigabeen unea da: 4., 5. eta 6. etapak 252, 228 eta 205 km izango dituzte hurrenez hurren. Eprintean erabakiko diren etapak esprinterrak dituzten taldeek lana egiten badute, ihesaldietarako egokiak tropelean erantzukizuna hartzeko prestasunik ez badago.

Zazpigarren etapen Tourra irabazteko hautagaien benetako egoera fisikoa zein den ikusteko aukera egongo da Meyrignac-Correzeko erlojupekoan. 58 km, luzea eta zaila. Erdialdeko Mendiguneko goi lautadan korrituko da eta gorabehera anitz ditu erlojupekoak. Hirugarren mailako mendate bat ere badu. Hurrengo bi etapak, lasaiak, Pirinioetara hurbiltzekoak dira.

**Pirinioetan, etapa motzak baina gogorrak** • 10. etapen iritsiko dira euskal herritarren bilgune diren Pirinioetako etapak. Euskal karrerista direnek eta ez direnek hara hurbiltzen diren zale porrokatuen animo etengabeak jasoko dituzte. 200 km eta klasikotian klasikoenak igoko dituzte Pau eta Luchon arteko etapen. Aubisque lehen (16,5 km, %7,2ko batez bestekoa) eta Tourmalet ezaguna hurrena, aurten alde leunenetik (18,4 km, %7,7). Etapako azken bi mendateak Aspin eta Peyresourde izango

dira. Azken gain horretatik Luchongo helmugara 15 km eskas geratuko dira, guztiak beherantz.

Hurrena are motzagoa izango da, urduriagoa: 170 km eskas Luchon eta Plateau de Beille mendatearen artean. Gaietan amaituko den lehena izango da. Etapako lehen bi mendateak oso gogorrak dira. Menté (9,3 km, %8,9) eta Portet de Aspet (4,4 km, %9,7). Core eta Port mendateak luzeak baina leunak dira. Azken 16 kilometrotan plateau de Beille-ra igoko dira, kategoriaz kanpoko mendateak. Hasiarako zortziak oso gogorrak dira, %8-9 arteko batez bestekoekin, eta azken zortziak leunagoak, jaitziera batekin. 12. etapa luak izango da eta Alpeetako bidean egingo diren 13.ak eta 14.ak badute arriskurik. Bigarren mailako mendate lehena helmugatik 20 km-ra eta gorabehera dezentekoa, bestea Grenoblara bidean.

Hiru etapa menditsuetako lehena izango da 15.a. 16.ak bost mendate izango ditu, 204 km, eta helmugatik 40ra La Madeleine gogorraren gaina (20 km, %7,7ko desnibela). Hurrengo egunean indarrak sobra dituztenek lehen mailako bi mendate izango dituzte garaipena bilatzeko, baina mendate luze bezain leunak dira, haietako bat Le Revard ezaguna. Gorabehera batzuk dituzten bi etaparen ostean, 20. etapako erlojupekoa (52 kilometro). Garailea erabakita egongo da ziur aski erlojupekoa hasi baino lehena-go.

### Galibier, amaitzen ez den mendatea

HAMABOSGARREN etapa Tourreko etapa erabakigarriena da ziur aski. 189 kilometrotan Grenoble eta Les Deux Alpes mendateko tartea bete beharko dute txirrindulariek. 74. kilometroan Croix de Fer ezaguna igoko dute. Harrizko desertua, eguzkiak gupidarik gabe berotzen duen bazterra. Ase ez denak Tourreko mendate gogorrenari ekin beharko dio, Galibierrri, hain zuzen ere. 2.645 metroko garaiera, 30 kilometroko igoera, ia %7ko desnibelarekin. 2.200 metroak gainditzen dituen mendate bakarra da, hori delarik oxigenoa eskasten hasten den garaiera. Amaitzeko Les Deux Alpes igo beharko dute, 9 km *bakarrik*.

Andoni Urbistondo  
DONOSTIA